

## Emakumeek esfera publikoan duten parte-hartzea aztertu du #Plazandre jardunaldiak

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) emakumeek esfera publikoan duten parte-hartzeaz hitz egiteko ekitaldia antolatu du
- Giza Liburutegiak metodologiaren bitartez 9 emakumeren esperientzia partekatu da hobetze-proposamenak bilatzeko

*Bilbon, 2018ko urriaren 31n.* Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, Emakunde eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin #Plazandre ekitaldia antolatu du gaur Bilboko Bizkaia Aretoan. Maialen Olabek, EGK-ko presidenteak laburtu duenez, “hainbat emakumek esfera publikoan parte hartzeko dituzten oztopo eta zailtasunei buruz hitz egin da, esperientzia horietatik abiatuz hobekuntza-proposamenak bilatu eta hauek gizarteratzeko”.

### Espazio publikoen mugak

EGK eta bestelako eragileek antolatutako topaketetan ematen den parte-hartzea nolakoa den ikusita, honen zergatia aztertu eta espazio publikoetan egun ezartzen diren mugen zergatiak hausnartu nahi izan da. “Historikoki patriarkatuak emakumeak eremu pribatuan mantendu izan ditu eta emakumeek espazio publikoa hartu izan dutenean edota jendaurreko jarduna burutu dutenean, balioespena lortu behar izan dute egitura horren aurka joan ahal izateko”, adierazi du Irati Baroja Agirregabiria, EGK-ko berdintasun-teknikariak.

Barojak zehaztu duenez, “egun espazio publikoak maskulinoak dira” eta antolatutako ekitaldiaren bitartez “emakumeek hitza hartzeko, egoera honen arrazoia zein den ikusi eta etorkizunean espazio hauetan emakumea ahalduz baliagarriak izan daitezkeen tresnak” sortu nahi izan dira.

### Emakume ezberdinak irakurgai

EGK-k aurrera eramandako topaketak bi zati izan ditu. Lehenean Miren Amuriza Plaza, Oihana Etxebarrieta Legrand, Maialen Gurrutxaga Uranga, Danele Sarriugarte Mochales, Zuriñe Hidalgo Alonso, Laura Chamorro Navarro, Erika Olaizola Eizmendi, Janire Azkueta Borlaff eta Irati Sarasua Arabaolaza gonbidatuak liburu ‘bihurtu’ dira Danimarkan sortutako Giza Liburutegiak izeneko dinamikan. “Espazio intimoan gonbidatuek euren bizipenak kontatu dituzte”, adierazi du Olabek. Bigarren zatian berriz, topaketara hurbildutako emakume guztiek, euren ideiak landu ahal izan dituzte: “asko baloratu dute bizipenak amankomunean jartzea eta garrantzia handia eman diote hauek elkarbanatzeko espazioak eta etorkizunera begira baliagarriak izan ahal zaizkien bideak sortzeari”, laburtu du Barojak.

Azkenik, Olabek adierazi du “jardunaldi hau EGK-k BFArekin, Bilboko Udalarekin, Emakunderekin, eta Eusko Jaurlaritzarekin” burutu dela. EGK-ko presidenteak azpimarratu du honen helburua “gazteek identifikatutako beharrei” erantzutea dela.